

MENDARO BERRI

04
2021/5

Gizarte ongizatea	02-03
Laburrak	04-05
Mendaro berdea	06-07
Etorkizuneko Mendaro	08-09
Garapen ekonomikoa	10-11

HIRIGUNETIK OSPITALERA DOAN IGOGAILUA ERREALITATE BILAKATZEKO URRATS BAT GERTUAGO

02-07

EN MARCHA EL PROCESO DE LICITACIÓN DEL SERVICIO DE USO Y GESTIÓN DE LAS VIVIENDAS TUTELADAS Y EL CENTRO DE DÍA

14-15

SANTAKUTZ PAREKO UDAL PISTAK GARBITZEKO LANEI EKIN DIE MENDAROKO UDALAK



TUTOREZAPEKO ETXEBIZITZEN ETA EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA ETA ERABILERA ESLEITZEKO PROZESUA ABIARAZI DU MENDAROKO UDALAK

Tutoretzapeko etxebizitzaren kasuan horien funtzionamendu egokia bermatzeko gainbegiratze lanak edota, beharrezkoa den kasuetan, arreta pertsonala eta etxekoa eskaintzea da helburua.



Mendaroko Udalak abian jarri berri du herriko etxebizitza sozialen eta eguneko zentroaren kudeaketa eta erabilera esleitzeko prozesua.

Tutoretzapeko etxebizitzaren helburu nagusia da adinekoen ohiko ingurunean ahalik eta denbora gehienez eta baldintzarik egokienetan jarraitzeko erraztasunak eskaintzea, autonomia galera prebenitzeko edota arintzeko beharrezkoak diren laguntza zehatzak bermatuz. Horrekin batera, pertsona horiei komunitatean bizitzeko aukera eskaini nahi zaie.

Horretarako, adinekoak gizarte sare batean txertatzea sustatuko da Udaltik; horrek, kalitatezko harremanak eskainiko dizkie, hau da, babesa eta laguntza jasoko dute (emoziozkoa, informazio mailakoa eta instrumentala). Era berean, gizarte sare horrek norberaren nortasuna finkatzen lagunduko du, begiruneko arreta pertsonalizatuaren bitartez.

Eguneko Zentroan, halaber, zerbitzuaren helburu orokorra erabiltzaileei (mendekotasuna duten adinekoak) atentzio eta arreta integrala eskaintzea da, pertsona horien premia indibidualei erantzunez eta haien autonomia sustatuz zein bizi kalitatea hobetuz. Horrekin batera, haien familiei arreta egokia eskaintzen zaiela bermatu behar da.

Gauzak horrela, zerbitzuaren kudeaketa eta erabilera egokia bermatzeko aldera, Udalak beharrezkotzat jotzen du zaintzaile-animatzaile, psikologo, koordinatzaile eta garbitzailez osaturiko taldea osatzea. Horretarako, ezinbestekoa da langileen trebakuntza garatu beharrezko lanera egokitua izatea, antzeko edukia duten lanetan esperientzia izatea eta, noski, EAEko hizkuntza ofizialak ezagutzea.

• • • • •

EN MARCHA EL PROCESO DE LICITACIÓN DEL SERVICIO DE USO Y GESTIÓN DE LAS VIVIENDAS TUTELADAS Y EL CENTRO DE DÍA

El Ayuntamiento de Mendaro ha sacado recientemente a licitación el servicio de uso y gestión de las viviendas tuteladas y el Centro de Día del municipio.


El principal objetivo de las viviendas tuteladas es facilitar a las personas mayores la permanencia en su entorno habitual durante el mayor tiempo posible y en las condiciones más adecuadas, garantizando las ayudas

concretas necesarias para prevenir y/o paliar la pérdida de autonomía. Junto a ello, se pretende ofrecer a estas personas la posibilidad de vivir en comunidad.

Para ello, desde el Ayuntamiento se promoverá la integración de las personas mayores en una red social que les ofrezca relaciones de calidad, es decir, que reciban apoyo tanto a nivel emocional, informativo e instrumental. Asimismo, esta red contribuirá a consolidar la propia identidad a través de una atención personalizada y respetuosa.

En cuanto al Centro de Día, el objetivo general del servicio es ofrecer una atención integral a las personas usuarias (personas mayores dependientes), atendiendo a sus necesidades individuales, fomentando su autonomía y mejorando su calidad de vida. Junto a ello, se debe garantizar una atención adecuada a sus familiares.

Así pues, con el fin de garantizar la adecuada gestión y uso del servicio, el Ayuntamiento considera necesario formar un equipo integrado por personas cuidadoras/animadoras, psicólogas/os, coordinadoras/es y limpiadoras/es. Para ello, es imprescindible que la formación del personal sea adaptada al trabajo a desarrollar, que tenga experiencia en trabajos similares y, por supuesto, que conozca las lenguas oficiales de la CAV.



✘
*Ikastolako
aire-garbigailueta-
ko bat.*

✘
*Uno de los purifi-
cadores de aire de
la Ikastola*

AIREA GARBITZEKO BI MAKINA JARRI DITU MENDAROKO UDALAK EGUNEKO ZENTROAN

Herriarren osasuna eta ongizatea ardatz hartuta, Mendaroko Udalak urrats bat gehiago eman berri du Covid-19ari aurre egin eta birusaren aurrean mendarotarren segurtasuna bermatze bidean, eguneko zentroan airea garbitzeko bi makina jarri ditu.

Gailu horiek prebentzio neurri gisa jarri ditu, hain zuzen, bertako erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko. Horien funtzioa da, zehazki, airean dauden germe eta birusen presentzia murriztea, horrela, kutsatzeko arriskua txikituz. Aire-garbigailuak pisu eta tamaina txikia dute eta, altueran kokatuta daudenez, birusak dituzten aerosoletatik gertuago daude eta errazago detektatzen dituzte. Ekipoaren beheko aldetik jasotzen dute airea, eta behin garbituta, goiko aldetik kanporatzen dute. Aire-zirkulazio honek aireztapen naturala simulatzen du.

Makina horien funtzioa da airean dauden germe eta birusen presentzia murriztea, kutsatzeko arriskua txikituz.

Ikastolako aire-garbigailuak
Udalak dagoeneko ezagutza nahi-ko du horrelako gailuetan, joan den otsailean horrelako hiru gailu ipini baitzituen ikastolan, bereziki etxeko txikienak babesteko eta horretara bideratu zituen 3.215,58 €.

Oraingoan, esan bezala, neurri hori eguneko zentroraz zabaldu du. "Adinako pertsonak kolektibo zaugarria dira birusaren aurrean, horrenbestez, ikastolan egin bezala, garrantzitsutzat jo dugu, gure adinekoak zaintze aldera, eguneko zentroan ere horrelako makinak jartzea. Etorkizunera begira, halaber, Covid-19ak gure artean jarraitzen duen bitartean, birusari aurre egiteko neurri gehigarriak hartzen jarraituko dugu, gure lehentasuna baita herritar guztien segurtasuna bermatzea", azaldu du alkateak. Guztira 1.600€ bideratu ditu Udalak gailu horietara.

EL AYUNTAMIENTO DE MENDARO HA INSTALADO DOS PURIFICADORES DE AIRE EN EL CENTRO DE DÍA

Tomando como eje y prioridad la salud y el bienestar de las y los habitantes de Mendaro, el Ayuntamiento ha dado un nuevo paso para continuar garantizando la seguridad de la ciudadanía ante la Covid-19, ha instalado dos purificadores de aire, esta vez, en el centro de día.

Estas máquinas son una medida de prevención con el fin de garantizar la seguridad de las personas mayores y usuarias del centro. Su función es reducir la presencia de gérmenes y virus en el aire, minimizando así el riesgo de contagio.

Las máquinas tienen poco peso y son pequeñas y, al estar situadas en altura, están más cerca de los aerosoles que contienen virus y así los detectan más fácilmente. Recogen el aire desde la zona baja del equipo y lo expulsan libre de impurezas por la zona superior, creando una circulación de aire en elipse, que simula la ventilación natural.

Purificadores de aire también en la Ikastola

El Ayuntamiento ya conoce la efectividad de estos purificadores y es que el pasado mes de febrero instaló tres máquinas como estas en la Ikastola, de cara a proteger a las y los más pequeños de la casa. A ello destinó 3.215,58 euros.

Esta vez, ha ampliado y llevado dicha medida de prevención al centro de día, con un presupuesto de 1.600 euros. "Las personas mayores son un colectivo vulnerable ante el virus, por tanto, hemos considerado adecuado instalar estas máquinas en el centro de día, al igual que hicimos en la Ikastola. Asimismo, de cara al futuro, continuaremos tomando medidas adicionales para hacer frente al Covid-19, teniendo como prioridad garantizar la seguridad de toda la ciudadanía", ha señalado el alcalde de la localidad.



2021EKO EUSKARA PLANA OSATU DU MENDAROKO UDALAK

Plana UEMAekin elkarlanean landu da eta bi esparru nagusitan egituratu da: Udaleko barne funtzionamendua batetik, udal mailan euskararen erabilera bultzatzeko helburuz, eta herri maila bestetik, herrian eta herritarrengan eragiteko helburuz.

Helburua da egunerokotasuneko esparru guztietan euskararen erabilera bultzatu eta indartzea eta horretara bideratuta hainbat ekintza jasotzen ditu Planak, 2021ean zehar aurrera eramango direnak.

EL AYUNTAMIENTO DE MENDARO REDACTA EL PLAN DE EUSKERA PARA 2021

El Plan, elaborado en colaboración con UEMA, se ha estructurado en dos grandes ámbitos: el funcionamiento interno del Consistorio, por una parte, con el fin de impulsar el uso del euskera en la acción municipal, y la ciudadanía por otra, con el propósito de activar al municipio y sus vecinas y vecinos. El principal objetivo del Plan es impulsar y promover el uso del euskera en todos los ámbitos y para ello, el Plan recoge una serie de acciones que se llevarán a cabo a lo largo de 2021.

'BEGIEKIN ENTZUTENAK' KULTURA ZIKLOA JARRI DUTE ABIAN MENDAROKO UDALAK ETA GARAROCK TALDEAK HERRIAK KALITATEZKO KULTURA BULTZATZEKO

2021ean urtarokako kultur-ekintzen programazioa landu eta kartel batean jaso da. Udaberrian 4 kontzertuekin abiatu du ibilbidea: Muga, Testura, Mursego eta Munlet taldeen kontzertuak.

Ekitaldi guztiak San Agustin Aretoan kokatuko dira, Covid-19aren aurrean segurtasun eta prebentzio neurri oro betetze aldera. Sarrerak Puxikan eta Uztargin eskuratu ahal izango dira 3 euroko prezioan.

Iñaki Arregui alkatearen iritziz, "kulturak berebiziko garrantzia du herritarrek batzen gaituelako, bizitza soziala bultzatuz. Aisia da, herrian bertan eskaintzen dugun aisia, baina baita erakargarri turistikoa ere, zentzu zabalean, bidaia bat egin eta zenbait ekitaldiz gozatzeko aitzakia baita, herrian bertan mugimendua sortu eta ehun ekonomikoa bultzatuz".

EL AYUNTAMIENTO Y GARAROCK PONEN EN MARCHA EL CICLO CULTURAL 'BEGIEKIN ENTZUTENAK' PARA IMPULSAR CULTURA DE CALIDAD EN MENDARO

En 2021 se ha elaborado la programación de actividades culturales estacionales. En primavera ha comenzado su andadura con 4 conciertos: Muga, Testura, Mursego y Munlet.

Todos los actos tienen lugar en San Agustín con el fin de cumplir con todas las medidas de seguridad y prevención ante el Covid-19. Las entradas se podrán adquirir en Puxika y Uztargi al precio de 3 euros.

En opinión del alcalde Iñaki Arregui, "La cultura es vital porque nos une a la ciudadanía, impulsando la vida social. Es el ocio, el ocio que ofrecemos en el propio pueblo, pero también el atractivo turístico en sentido amplio, que es la excusa para hacer un viaje y disfrutar de algunos eventos, creando movimiento en el propio municipio e impulsando, así, el tejido económico".

*Ellab in pres autem experro moluptat-
taeEt utatio. Et omnim alicae verum,
volum fugit quia quod moluptam etus*

AISIALDIKO BEGIRALE TITULUA EUSKARAZ LORTZEKO IKASTAROTARAKO DIRULAGUNTZAK EMANGO DITU MENDAROKO UDALAK

Emango den laguntza, matrikula-ren kostuaren %50a izango da, eta gehienez 250 eurokoa. Partidan izendatutako kopurua proportzionalki banatuko da eskaera guztien artean. Ez dira diruz lagunduko bidaia gastuak eta abar.

Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale titulua lortzeko ikastaroak bultzatzea da helburua, trebaketa egokia duten hezitzaile taldeek haur eta gazteen aisialdi heziketan duten garrantzia eta ikastaro hauek betetzen duten funtzio soziala aintzat hartuta.

Dirulaguntza eskaerak Kultura Zerbitzuak emandako inprimakian aurkeztu behar dira 2021eko irailak 15a baino lehen.

EL AYUNTAMIENTO DE MENDARO SUBVENCIONARÁ LOS CURSOS PARA LA OBTENCIÓN DEL TÍTULO DE MONITOR/A DE TIEMPO LIBRE EN EUSKERA

La ayuda a conceder será del 50% del coste de la matrícula, con un máximo de 250 euros. La cantidad consignada en la partida se distribuirá proporcionalmente entre todas las solicitudes. No se subvencionarán gastos de viaje, etc.

El objetivo es impulsar cursos para la obtención del título de Monitor/a de Ocio Infantil y Juvenil, teniendo en cuenta la importancia de los grupos educativos con capacitación adecuada en la educación en el tiempo libre infantil y juvenil y la función social que desempeñan estos cursos. Las solicitudes de subvención deberán presentarse en el impreso facilitado por el Servicio de Cultura antes del 15 de septiembre de 2021.



2.739€KO LAGUNTZA JASO DU MENDAROK GENERO INDARKERIA EZABATZEKO BIDEAN URRATSAK EGITEN JARRAITZEKO

Genero indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren baitan, Foru Aldunditik jasotako Udalak laguntza hori eta helburua da, horren bitartez, genero-indarkeria desagerrarazteko programak bultzatu eta gauzatzea.

“Emakumeen aurkako indarkeria gure gizartean dagoen berdintasun faltaren adierazle ikusgarri eta bortitzena da, egiturazko indarkeria bat, alegia. Gaur egun, baina, helburua da orain arteko desberdintasunekin moztu eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzea eta Udaletik horren alde lan egiten jarraituko dugu orain eta beti”, adierazi dute udal ordezkariak.

MENDARO RECIBE 2.739€ EN CONCEPTO DE AYUDA PARA SEGUIR AVANZANDO EN LA ERRADICACIÓN DE LA VIOLENCIA DE GÉNERO

En el marco del Pacto de Estado contra la violencia de género, el Ayuntamiento ha recibido esta ayuda por parte de la Diputación con el fin de impulsar y llevar a cabo programas para acabar con la violencia contra la mujer.

"La violencia contra las mujeres es el indicador más crudo y visible de la falta de igualdad que existe en nuestra sociedad, una violencia, lamentablemente, de índole estructural. Hoy en día, sin embargo, el objetivo es cortar con las diferencias hasta ahora existentes y construir una sociedad libre de violencia contra mujeres y desde el Ayuntamiento seguiremos trabajando por ello ahora y siempre", han concluido desde el Consistorio.



MENDAROKO GAZTEEI ZUZENDURIKO ALOKAIRURAKO DIRU-LAGUNTZA LERROA LANTZEN ARI DA UDALA

Diru-laguntzaren xedea da etxebizitza alokatzeagatik ordaindu beharreko hileroko kuota diruz laguntzea eta horretara bideratuko ditu, hain zuzen, hasiera batean, udal aurrekontuaren 3.000€. Udalak gazteei bultzada ekonomikoa ematearen aldeko apustua egin du, gobernuaren nahia izanik laguntza lerro honen bitartez gazte gehiagok, bakarrik edo pertsona gehiagorekin, emantzipatzeko aukera izatea.

EL AYUNTAMIENTO TRABAJA EN UNA LÍNEA DE AYUDAS PARA EL ALQUILER DIRIGIDAS A LA JUVENTUD DEL MUNICIPIO

La finalidad de esta es poder ayudar al máximo número de jóvenes posible y el planteamiento principal es ofrecer ayudas para pagar las rentas mensuales del alquiler. El Ayuntamiento apuesta por dar ese empujón económico a las y los jóvenes, siendo su principal objetivo que, gracias a esta ayuda, más jóvenes puedan independizarse, sea individualmente o con más personas.

MENDAROKO ZUHAITZ EGUNEAN 350 HARITZ ETA PAGO LANDATU DITUZTE BERTARATUTAKO 50 HERRITARREK

Martxoan Zuhaitzaren Eguna ospatu zen Mendaron. Horretarako, Udalak zuhaitz landaketa antolatu zuen Arno Guraso Elkartearekin batera, hain zuzen, Txitxirrika baserriaren gainaldeko eremuan dituen lursailetan.

Guztira 50 herritar inguruk hartu zuten parte. Bertan, Mendaro Ikastolako haur zein gurasoekin pagoak zein haritzak landatu ziren, espezie bakoitzeko 175 zuhaitz zehazki. Udalak herritarrei izandako parte-hartzea eskertu die.

Zuhaitz landaketaren helburua izan da landa ingurunearekiko zaintza eta sentsibilizazioa bultzatzea, bereziki adin txikitatik. “Garrantzitsua da haurrak ekologia eta ingurumenarekiko errespetuan eta zaintzan oinarrituta heztea, haurrek ingurumenaren inguruko kontzientzia, sentsibilitatea eta balioak gara ditzaten. Zorionez oso ingurune aberatsa dugu eta hein handi batean, guri eta ondoren gure hurrei dagokie horren biziraupena bermatzea. Horregatik, horrelako landaketa ekintzen bitartez, ingurune hori zaintzen eta maitatzen ikasi eta irakatsi behar dugu, etorkizunera begira, umeei gurea den horren balioa errotuta izan dezaten eta gure ingurumen naturala zein espezie autoktonoak zaindu, errespetatu eta maite ditzaten”, adierazi du Iñaki Arregui alkateak.

Helburua Mendaroko hurrei ingurumenaren inguruko kontzientzia, sentsibilitatea eta balioak txikitatik irakastea izan da, etorkizunera begira tokiko ingurumen zein espezie autoktonoak zaindu, errespetatu eta maite ditzaten.



50 MENDAROTARRAS PLANTAN 350 ROBLES Y HAYAS EN EL DÍA DEL ÁRBOL

En marzo Mendaro celebró el Día del Árbol, celebración para la cual el Ayuntamiento, en colaboración con Arno Guraso Elkartea (AMPA de Mendaro Ikastola), organizó una salida a los terrenos municipales situados en el alto del caserío Txixirrika para plantar árboles en dicha zona.

En total participaron 50 mendarotarras y plantaron 175 hayas y otros 175 robles. El Consistorio ha agradecido a la ciudadanía su participación.

El objetivo de esta iniciativa ha sido promover el cuidado y la sensibilidad hacia el entorno rural, especialmente desde edades tempranas. “Consideramos necesario educar a los y las niñas desde el respeto y el cuidado por la ecología y el medio ambiente para que desarrollen conciencia,



sensibilidad y valores en torno a ello. Afortunadamente contamos con un entorno natural muy rico y en gran medida, ahora nos compete a nosotros/as y después a nuestros hijos/as garantizar su perdurabilidad. Por ello, mediante este tipo de actividades, debemos aprender y enseñar a cuidar,

respetar y mimar nuestro entorno, de forma que, de cara al futuro, los niños y las niñas tengan arraigado un sentimiento por el cuidado y el respeto del mismo”, ha declarado el alcalde Iñaki Arregui.

SANTAKUTZ PAREKO UDAL PISTAK GARBITZEKO LANEI EKIN DIE MENDAROKO UDALAK

Landa ingurunearekiko apustuan eta honen zaintza zein biziraupena bermatze aldera, Mendaroko Udalak landa eremu publikoa garbitzeko lanetan dihardu.

Horri lotuta, berriki Santakutz parean dauden udal pistak garbitzeko lanei ekin die, urteen poderioz, horiek sasiz bete baitira. Gauzak horrela, Bergaretxe enpresa izango da garbiketa lanak egitearen arduradun eta horretara bideratu ditu Udalak, hain zuzen, 2.671 euro (BEZ kanpo).

Lan horien helburua da pistak garbi eta txukun uztea, datorren urteari begira, bertan espezie autoktonoak landatu ahal izateko. Gaur egun, lursail horietan pinudi bat dago eta asmoa da hori bertatik kentzea, pinuak gaixorik baitaude eta horien egoera ez baita ona. Edozein kasutan, Udalak, garbiketa lanak egin ostean eta beste edozein pauso eman aurretik, pinudia neurtu eta baloratuko du. Lan hori 2021ean zehar egitea aurreikusitako da.

EL AYUNTAMIENTO DE MENDARO INICIA LOS TRABAJOS DE LIMPIEZA DE LAS PISTAS MUNICIPALES SITUADAS FRENTE A SANTAKUTZ

En su apuesta por el entorno rural y con el fin de garantizar su cuidado y perdurabilidad, el Ayuntamiento de Mendaro trabaja en la limpieza de las zonas rurales públicas del municipio.


Ligado a ello, recientemente ha iniciado los trabajos de limpieza de las pistas municipales que se encuentran frente a Santakutz, ya que, con el paso de los años, estas se han cubierto de matorrales. Así las cosas, la empresa Bergaretxe será la encargada de llevar a cabo dichos trabajos y el presupuesto para ello

es de 2.671 euros (sin IVA).

El objetivo de las labores de limpieza es dejar despejada la zona para realizar una nueva plantación de especies autóctonas de cara al año que viene. Hoy en día, hay un pinar en dicho terreno, pinar que el Consistorio tiene intención de retirar puesto que, lamentablemente este se encuentra enfermo y en mal estado. No obstante, tras finalizar la limpieza de la zona y antes de dar ningún otro paso, el Ayuntamiento valorará y medirá el pinar. Está previsto que llevé a cabo este trabajo en 2021.

*Azken oso-
ko bilkuran,
hirigunetik
ospitalera igoko
den igogailua-
ren proiektua-
ren idazketa
martxan jartzea
onartu zuen
udalbatzak.*

HIRIGUNETIK OSPITALERA DOAN IGOGAILUA ERREALITATE BILAKATZEKO URRATS BAT GERTUAGO



Mendaroko ospitalea aski ezaguna da Gipuzkoa mailan eta mendarotarrak artatzeaz haratago, zerbitzua eskaintzen die Debarrena eskualdeko biztanleei, baita inguruko beste herri zein eskualdetatik datozenei ere.

Kontuan hartuta, beraz, ospitaleak herri, eskualde zein lurralde mailan duen garrantzia eta gainera, eraikina herrigunearikiko urrun eta eremu altu batean dagoela, Mendaroko udal gobernuak lehentasunezkoztat jo du aipatu eraikinera heltzeko irisgarritasuna hobetzea eta hirigunetik ospitalera igoko den igogailu bat eraikitzeko prozesua jarri du martxan.

Proiektu hori, hain zuzen, Mendaroko Kudeaketa Planean jasoa dago eta hori oinarri hartuta, lehen urrats gisa, azken osoko bilkuran, proiektuaren idazketa martxan jartzea onartu zuen udalbatzak. Horri jarraiki, datozen asteotan aipatu lanekin hasia espero du Udalak.

Igogailuaren helburu nagusia ospitalerainoko irisgarritasuna hobetzea da, bai herritarrentzat zein trenez heltzen diren gainerako erabilzaile guztientzat ere. Ildo horretan, igogailu honek 27 metro inguruko desnibela lotzea da asmoa, horretarako bi igogailu eraikiz: Kilimon etorbidetik Andoneikua etorbidera bata eta bertatik ospitalera bestea. Era berean, tartean ere beste geldiupe bat egitea aurreikusi da, hain zuzen kirol gunean, eremu hori ere erdigunearekin lotuz.

Mendaroko alkate Iñaki Arreguik nabarmendu du legealdi honetan herritarren bizi kalitatea esponentzialki hobetu nahi dutela, beste hainbaten artean, irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetuko duten azpiegiturak abian jarriz: “igogailuak asko erraztuko du mendarotar zein bisitarien mugikortasuna ospitalera. Oinarritzko zerbitzua da, herritar guztiok erabiltzen duguna, eta ezinbestekoa da irisgarritasuna bermatzea. Mendaroko etorkizunaren zimendu da, apustu estrategikoa. Lanak 2021eko bigarren seihilekoan hasia dugu aurreikusia”.

Helburua da mendarotarrentzat ospitalerainoko irisgarritasuna hobetzea, baita trenez heltzen diren erabilzaile guztientzat ere.



El principal objetivo del elevador es mejorar la accesibilidad hasta el hospital, tanto para la ciudadanía como para el resto de las personas usuarias que llegan en tren para acudir al centro sanitario.

✘ *Herrigunea eta ospitalea batuko dituen igogailuaren aurre-proiektuko planoak.*

✘ *Plano del ascensor que unirá el centro de Mendaro con el Hospital.*

un ascensor que suba desde el casco urbano al centro hospitalario.

Este proyecto está recogido en el Plan de Gestión de Mendaro 2019-23 y en base a ello, como primer paso del proceso, en la última sesión plenaria, la corporación municipal aprobó la puesta en marcha de la redacción del proyecto. Así pues, el Ayuntamiento espera comenzar dicha tarea durante las próximas semanas.

El objetivo principal del ascensor es mejorar la accesibilidad hasta el hospital, tanto para la ciudadanía como para el resto de las personas usuarias que acceden al centro sanitario en tren. De este modo, la intención es que el ascensor conecte un desnivel de unos 27 metros mediante la construcción de dos ascensores, uno desde la avenida Kilimon a la avenida Andoneikua y otro desde ésta última al hospital. Asimismo, se prevé una parada más en el trayecto, concretamente en la zona deportiva, conectando también esta con el casco urbano.

Iñaki Arregui, alcalde de Mendaro, destaca que en esta legislatura se pretende mejorar exponencialmente la calidad de vida de la ciudadanía, poniendo en marcha, entre otras, infraestructuras que mejoren la accesibilidad y la movilidad: "El ascensor facilitará mucho la movilidad tanto de mendarotarras como de visitantes al hospital. Es un servicio básico que utilizamos todas las y los ciudadanos y es imprescindible garantizar la accesibilidad. Es una apuesta estratégica de cara al futuro de Mendaro".

EL ASCENSOR QUE IRÁ DESDE EL CASCO URBANO AL HOSPITAL, UN PASO MÁS CERCA DE HACERSE REALIDAD

En el pleno celebrado el pasado 25 de febrero se aprobó la puesta en marcha de la redacción del citado proyecto.

El hospital de Mendaro es de sobra conocido en Gipuzkoa y alrededores y más allá de prestar servicio a las y los habitantes del propio municipio, atiende también a personas procedentes de otras localidades y comarcas cercanas.

Teniendo en cuenta, por tanto, la importancia que tiene el hospital a nivel local, comarcal y territorial y que, además, este se encuentra en una posición elevada respecto al casco urbano del municipio, el gobierno municipal de Mendaro considera prioritario mejorar la accesibilidad al centro sanitario y de los alrededores, por lo que, ha puesto en marcha el proceso para la construcción de



2021EKO UDABERRIKO MERKATARITZA KANPAINAN PARTE HARTZEKO AZKEN EGUNAK

• • • • •

Maiatzaren 14a bitartean abian izango da Mendaron udaberriko merkataritza kanpaina, tokiko merkataritza eta kontsumoa bultzatu eta suspertzeko hainbat sari eta zozketekin.

• • • • •

Guztira 13 saltoki atxiki dira aurtengo kanpaina honetara: Galle-tiak, Farmazia, Leire, M^aAxun, Perosanz, Puxika, Lutximak, Itxasertz, Anton, Coviran, Art Fruit, SGerons eta Morroskillo.


Horrela, maiatzaren 14a arte (egun hori barne) komertzio horietan 15 euro edo gehiagoko erosketak egiten dituzten bezeroek zozketa tiket bat jasoko dute. Komertzio parte-hartzaileek 300 zozketa tiket banatzeko aukera izango dute kanpaina osoan zehar eta bezeroek tiket hori maiatzaren 15a arte jaso beharko dute.

Egun horretan, guztira 9 sari desberdin zozketatuko dira kanpainen parte-hartu duten guztien artean.

Lehen saria jasotzen duenak Ederki-Lutximak-en bi zerbitzuetan 50 euroko deskontua eta komertzio parte-hartzaile diren 13 dendetan erositako 50 euroko produktuak jasoko ditu. Gainerako 8 sariak kanpainen parte-hartu duten dendetan gastatzeko 50 euroko deskontu bonuak izango dira eta uztailearen 31a baino lehen erabili beharko dira.

Tiket saridunen zenbakiak Mendaroko Udalaren webgunean, udal taulan eta parte-hartu duten establezimenduetan iragarriko dira. Sariak, halaber, udaletxeko Arreta zerbitzuan jasoko dira, saridun zozketa tiketa aurkeztuta, maiatzak 30a baino lehen.

Kanpainaren helburua da Mendaroko merkataritza eta merkatarien lana ba-



✘
Sariak erakus-
leihoan.

✘
Los premios en el
escaparate

bestea eta honi bultzada ematea toki-ko kontsumoa indartzeko eta horretara bideratuko ditu Udalak, hain zuzen, 3.000 euro. Iñaki Arregui alkateak nabarmendu du Udalak herri-ekonomiaren alde egindako apustuaren erakusle berri bat dela ekimena: "herria bizi mantendu eta bertako ehun ekonomikoa babestu nahi dugu: gure betiko dendak, ostatuak, zerbitzuak... guztioi dagokigu bertan kontsumitu eta herrian aberastasuna sortzea, zentzu orotan: sozialki, ekonomikoki, identitarioki zein jasangarritasunaren ikuspuntutik" berretsi du.

Merkataritzaren Eguna

Udaberriko kanpainarekin batera, maiatzaren 15ean Merkatartzen Eguna ospatuko da eta ospakizun horri indarra emate aldera, 11:00-14:00 bitartean, bigarren eskuko azoka eta herriko zenbait denden postuak jarriko dira pilotalekuan.

Egun horretan, halaber, aurrez aipatu bezala, udaberriko kanpainako zozketa egingo da, kanpainan zehar parte-hartu duten bezeroen artean.

ÚLTIMOS DÍAS PARA PARTICIPAR EN LA CAMPAÑA DE PRIMAVERA DEL COMERCIO DE MENDARO CON EL OBJETIVO DE IMPULSAR EL CONSUMO LOCAL

Hasta el 14 de mayo, todas las personas que realicen compras iguales o superiores a 15 euros en los comercios adscritos a la campaña recibirán un ticket que deberán conservar para participar en el sorteo de 9 premios que se realizará el 15 de mayo.

• • • • •

Hasta el 14 de mayo el comercio de Mendaro celebra su campaña de primavera con premios y sorteos varios para revitalizar y fomentar el comercio y el consumo local.

En total, son 13 los comercios que se han adherido a la campaña: Galletiak, Farmazia, Leire, M^aAxun, Perrosanz, Puxika, Lutximak, Itxasertz, Anton, Coviran, Art Fruit, SGerons y Morroskillo.

Así, hasta el 14 de mayo (dicho día inclusive) las personas que realicen compras iguales o superiores a 15 euros en estos comercios recibirán un ticket para participar en el sorteo de 9 premios que se realizará el 15 de mayo, Día del Comercio. De este modo, los comercios participantes podrán repartir entre sus clientes 300 tickets de sorteo.

El primer premio contiene descuentos de 50 euros en dos servicios de Ederki-Lutximak y productos de 50 euros adquiridos en las 13 tiendas participantes. Asimismo, los restantes 8 premios serán vales de descuento de 50 euros a gastar, antes del 31 de julio, en los comercios participantes.

Los números de los tickets ganadores se publicarán en la web del ayuntamiento, en el tablón municipal y en los comercios que participan en la

campaña. Asimismo, los premios se recogerán en el Servicio de Atención del ayuntamiento presentando el ticket y siempre antes del 30 de mayo.

El objetivo de esta campaña no es otro que seguir revitalizando el comercio local y fomentar el consumo local, poniendo en valor el trabajo realizado por las y los comerciantes y a ello destinará el ayuntamiento 3.000 euros. El alcalde Iñaki Arregui ha destacado que la iniciativa es un nuevo exponente de la apuesta del Ayuntamiento por la economía local: "Queremos mantener el pueblo vivo y apoyar su tejido económico: nuestras tiendas, alojamientos, bares, servicios... Nos corresponde a todos y todas consumir local y generar riqueza en el municipio en todas sus vertientes: social, económico, identitario y desde el punto de vista de la sostenibilidad".

Día del Comercio

Junto con la campaña de primavera el 15 de mayo se celebrará también el Día del Comercio, día en el cual, además de realizarse el sorteo de los 9 premios que se repartirán en esta campaña del comercio, el frontón municipal acogerá una feria de segunda mano y puestos de diversas tiendas del municipio en horario de 11:00 a 14:00.

Maiatzaren 14ra bitartean, 15 euro edo gehiagoko erosketak egiten dituzten bezeroek zozketa tiket bat jasoko dute. Guztira 9 sari desberdin egongo dira jokoan eta horiek maiatzaren 15ean zozketatuko dira.

MENDARO

AZKEN BERRIAK SAKELEKOAN

JASO MENDAROKO INFORMAZIOA
WHATSAPP BIDEZ

RECIBE LA INFORMACIÓN DE
MENDARO **POR WHATSAPP**

Animatu!
www.mendaro.eus

